



Osakidetza

EGOILIARRAREN ESKULIBURUA

Donostia Unibertsitate Ospitalea

**BAME Graduatu Ondokoaren
Irakaskuntza Batzordea**



Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. Donostia Unibertsitate Ospitalea	4
Garraioa eta aparkamendua	4
Irakaskuntza Arloaren kokapena	5
Jakinarazpenak eta abisuak	5
2. Espezialitate akreditatuak	6
3. Irakaskuntzarako antolamendua	8
Irakaskuntza Batzordea	8
Ikasketa-burua	9
Ebaluazio Batzordeak	10
Tutorea	10
4. Asistentzia, Irakaskuntza, Ikerkuntza eta Erakundean Parte Hartzea .	12
4.1. Egoiliarra osasun-zentroan	12
4.2. Jarduera asistentzialak	13
• Guardiak	14
• Guardiak Larrialdien Arloan	14
• Espezialitateko Guardiak	15
4.3. Irakaskuntza-jarduerak	15
• Prestakuntza-Programa	15
• Saioak	16
• Ikastaroak	16
• Kanpo-errotazioak	17
• Liburutegia	17
4.4. Ikerkuntza-jarduerak	19
5. Ebaluazioak	20
6. Gogobetetasun-inkesta	21
7. Egoiliar onenarentzako saria	22

AURKEZPENA

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak on-gietorria egiten dizu, eta zorionak eman nahi dizkizu Prestakuntza Sanitario Espezializatuko Programa egiteko gure ospitalea aukera-tzeagatik.

Sartzen zarenean zure bizitza profesionaleko etapa garrantzitsu bati ekingo diozu, eta etorkizunean zure espezialitatea garatu ahal izateko ezagutzak eta trebetasunak eskuratuko dituzu. Hori zure la-nari esker eta ospitaleak zure esku jarriko dituen baliabide tekniko eta giza baliabideei esker lortuko duzu.

Ibilbide horretan ondoan izango dituzun medikuek esperientzia eta ezagutza zabalak dituzte, zeuk ere pixkanaka zeureganatuko dituzunak eta zure lan asistentzialarekin eta eguneroko ikasketare-kin osatuko dituzunak prestakuntza bikaina jasotzeko. Espezialitate bakoitzean zure prestakuntza-programa diseinatzeko eta kontrola-tzeko tutoreen kopuru jakin bat dago. Haiek egingo dute urteroko jarraipena eta ebaluazioa.

Zure esku jarriko diren baliabide teknikoak efizientziaz kudea-tzen ikasi beharko duzu, garestiak eta mugatuak direlako. Horre-gatik, pazientearen onurarako erabili beharko dituzu beti, horiekin gerta daitezkeen arriskuak murriztuz.

Teknologiaren goraldiari esker medikuntzaren egunerokoan au-rrerapauso garrantzitsuak eman badira ere, funtsezko alderdi bat dago gaur hasiko duzun ikasketan: medikuaren eta pazientearen arteko harremana. Hau da, ez duzu ahaztu behar teknologia eta pa-zienteei arreta indibidualizatua eta pertsonalizatua ematea bateraga-riak direla, eta haiekin giza harreman etiko on bat mantendu behar duzula beti.

Hastear zauden epealdi honetan zure gogo eta ilusio guztia jarriko dituzula espero dugu, horrela zeure buruari markatu dizkiozun hel-buruak lortuko baitituzu.

Irakaskuntza Batzordeak bermatuko du zuk prestakuntza egokia jasotzea, eta zure esanetara izango duzu arazorik sortzen bazaizu edota gurekin hastear zauden prestakuntza-aldi honetan zure kezka eta ekimenei arreta emateko.

Ongi etorri.

Pilar Marco Garde dk.

Irakaskuntza Batzordeko Lehendakaria

1. Donostia Unibertsitate Ospitalea

Donostia Unibertsitate Ospitalea Osakidetzakoa da eta 2001eko otsailaren 14an eratu zen. Izan ere, 1993an hasitako prozesu baten emaitza izan da, hain zuzen ere, Zorroaga Gaineko hiru ospitaleak, Amara, Arantzazu eta Gipuzkoa bat egiteko asmoa zeukana.

Gaixo akutuentzako 925 ohe dauzka, egonaldi ertain eta luze-koentzako 127 eta akutuentzat psikiatriako aldean beste 77. Hirugarren mailako asistentziari dagokionez, erreferentziako zentroa da Gipuzkoa osorako (700.000 biztanle), eta patologia akutuen kasuan, 350.000 biztanle inguru atenditzen ditu zuzenean. Horrezaz gain, lurralde osoa atenditzen du egonaldi ertain eta luzeko eta akutuen psikiatria arloetan. Gainera, zentroak espezialitate mediko eta kirurgiko guztiak izateaz gain, zerbitzu orokorrak ere baditu.

Donostia Ospitaleak, unibertsitate-ospitalea denak, zenbait lankidetzahitzarmen ditu beste ospitale batzuekin, hala nola, Baiona Kostakoa eta Onkologikoa Fundazioa. Asko dira horiekin eginiko ikerketa-proiektu bateratuak. Maiz, mundu osoko espezialistek saio kliniko eta kirurgikoak eskaintzen dituzte teknika aurreratuenak aurkezteko asmoz.

Garraioa eta aparkamendua

Ospitalea ondoko autobusei esker oso ondo komunikatuta dago: 28. linea (Amara-Ospitaleak), 31. linea (Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza), 35. linea (Arriola-Antigua-Ospitaleak) eta Iparbus-Herribus konpainiako H-6 linea (Errearteria-Ospitaleak). Horrezaz gain, Arantzazu eraikineko ate nagusiaren aurrean taxi-geltokia dago. Langileentzako garraio-linea batzuk daude toki hauetatik barrena joaten direnak: Irun, Hernani, Errearteria, Gros, erdialdea, etab.

Informazio gehiago izateko, Kudeaketa Zuzendaritzako Idazkari-tzan galdetu daiteke; bertan ere Gipuzkoa eraikinaren aldamenean dagoen aparkaleku pribatuan sartzeko txartela eska dezakezue.

Irakaskuntza Arloaren kokapena

Gaur egun irakaskuntza-jardueretarako lau ikasgela daude, Komunikazio Unitateko idazkaritzak kudeatzen dituenak. Ikasgela horiek Amara eraikineko 4. solairuan daude. Laster izango dugu irakaskuntza-egitura propioa Ama-haurrentzako eraikineko -3. solairuan.

Irakaskuntza Batzordeko Idazkaritza Arantzazu eraikineko 3. solairuan dago, Liburutegian, eta ordutegi jarraitua du 08:00etatik 15:00etara. Funtzio administratiboak Carmen Perearen esku daude. Kanpotik deitzeko telefono-zenbaki zuzena 943 007 330 da, eta mugikorra 888 221. Idazkaritza horrek prestakuntzako graduatu-ondokoekin lotutako funtzio administratibo guztiak zentralizatzen ditu. Bertan izapidetu beharko dira kanpo-errotazioen eskaerak, prestakuntza komun osagarriko ikastaroetarako izen-emateak, eta orokorrean irakaskuntzarekin nolabaiteko lotura duten alderdi guztiak.

Jakinarazpenak eta abisuak

Donostia Unibertsitate Ospitaleak egoiliarrekin komunikatzeko sistema bat dauka, ondorengoek osatuta dagoena:

- Iker-e (<https://10.ikere.net>): Donostia Unibertsitate Ospitaleko langileen eskura dagoen lankidetzako lan-ingurune bat da. Moodle tresna informatikoan oinarrituta dago, eta hainbat lan-arlotan edo GUNEtan lan egiten du. GUNE bakoitzak dauka bere izateko arrazoia, bere arduraduna eta parte-hartzaileak, eta baita lankidetzako bere tresna propioak ere. Iker-e bidez foroak, lan-arloak, webgune partikularrak eta abar sor daitezke. Ingurune horren barruan, egoiliarren GUNEa dago.
- Posta elektronikoa: egoiliarren eta Irakaskuntzako Idazkari-tzaren arteko komunikazio pertsonala ahalbidetzeko funtsezko bitartekoa.
- Iragarki-taula: bi bertsio ditu: fisikoa (medikuen jantokiaren sarreran kokatua) eta informatikoa (Iker-e tresnan dagoena). Egoiliarrei edonolako berriak eta abisuak emateko erabiltzen da.
- Iradokizun-ontzia: bi bertsiotan: fisikoa (Irakaskuntzako Idazkaritzaren sarreran kokatua) eta informatikoa (Iker-e tresnan dagoena). Irakaskuntza-prozesuaren inguruko edozein kexa edo iradokizun egiteko erabiltzen da. Iradokizunak Irakaskuntza Batzordeko bileretan aztertzen dira.
- Egoiliar bakoitzari zuzendutako gutunak edo jakinarazpenak bere espezialitateko zerbitzuko idazkaritzara bidaliko dira, eta ez egoiliarra errotazioan dagoen zerbitzura.

Irakaskuntza Batzordeak lehen urteko BAMEei harrera egiteko ekitaldi bat antolatzen du urtero Arantzazu eraikineko ekitaldi-aretoan. Eta ekitaldi horretan bertan banatzen da urte horretan bukatzen duten egoiliarren artean aukeratzen den egoiliar onenarentzako saria.

Telefono interesgarriak

Telefonogunea943 007 000

Irakaskuntzako Idazkaritza943 007 330
888221

Familia eta komunitate Medikuntza

Irakaskuntzako Idazkaritza943 007 629

Informatikako Idazkaritza 6052

hdo.informatika@osakidetza.net

2. Espezialitate akreditatuak


Irakaskuntzan aritzeko, ospitaleak Osasun Ministerioaren akreditazioa izan beharko du espezialitate bakoitzean, 37 espezialitatetan hain zuzen ere gure ospitalearen kasuan. Akreditazio hori aldizka berritzen da auditorien bidez.

ESPEZIALITATEA	URTE BAKOITZEKO EGOILIAR-KOP	IRAUPENA URTETAN
1. Analisi klinikoak	1	4
2. Anatomia patologiako	1	4
3. Anestesiologia eta Bizkortzea	3	4
4. Angiologia eta Kirurgia Baskularra	1	5
5. Digestio-Aparatua	2	4
6. Biokimika kliniko	1	4
7. Kardiologia	1	5
8. K. Orokorra eta Digestio Aparatukoa	3	5
9. K. Ortopedikoa eta Traumatologia	2	5

ESPEZIALITATEA	URTE BAKOITZEKO EGOILIAR-KOP	IRAUPENA URTETAN
12. Toraxeko Kirurgia	1	5
13. Dermatología MK eta B.	1	4
14. Ospitaleko farmazia	1	4
15. Hematologia eta Hemoterapia	2	4
16. Immunologia	1	4
17. M. Fisikoa eta Errehabilitazioa	1	4
18. Medikuntza Intentsiboa	2	5
19. Barne-Medikuntza	4	5
20. Laneko Medikuntza	1	4
21. Mikrobiologia eta Parasitologia	2	4
22. Nefrologia	1	4
23. Neumologia	1	4
24. Neurokirurgia	1	5
25. Neurologia	1	4
26. Obstetricia eta Ginekologia	3	4
27. Oftalmologia	2	4
28. Onkologia Medikoa	1	4
29. Onkologia Erradioterapikoa	1	4
30. Otorrinolaringologia	1	4
31. Pediatria eta Arlo Espezifikoak	6	4
32. Psikologia Klinikoa	1	4
33. Psikiatria	2	4
34. Erradiodiagnostikoa	3	4
35. Erreumatologia	1	4
36. Urologia	1	5
37. Familia eta Komunitateko Medikuntza	21	4

3. Irakaskuntzarako antolamendua

Ondorengo organigramak erakusten du Irakaskuntza Unitatearen antolamendua:



Irakaskuntza Batzordea

Prestakuntza antolatzeaz, horren aplikazio praktikoa gainbegiratzear eta espezialitateetako prestakuntza-programetan aurreikusitako helburuak betetzen direla kontrolatzeaz arduratzen den kide anitzeko irakaskuntza-organoa da Irakaskuntza Batzordea. Era berean, hari dagokio prestakuntza-jarduerak eta egoiliarren jarduerak osasun-zentroaren jarduera asistentzialaren eta arruntaren barruan integratzea erraztea, horretarako zentroko jarduera profesionala planifikatuz.

Bere funtzioak hauek dira:

- Espezialitate guztietan ematen den irakaskuntza bermatzea.
- Ospitaleko irakaskuntza-jarduerak koordinatzea.
- Prestakuntza jasotzen duten medikuek garatutako jarduera asistentzialen jarraipena egitea.
- Mediku egoiliarren prestakuntza ebaluatzea.
- Beste zentroetarako zerbitzu-eginkizunak sustatzea.
- Diru-laguntzei buruz informatzea eta horiek sustatzea.

Ondorengo kideak hartzen ditu: lehendakari bat, Bloke Medikoko ordezkari bat, Bloke Kirurgikoko ordezkari bat, Bloke Zentraleko ordezkari bat, Bloke Pediatriko eta Ginekologikoko ordezkari bat, Larrialdien Blokeko ordezkari bat, Familia eta Komunitateko Medikuntzako koordinatzailea, Kalitateko ordezkari bat, BAMEen 5 ordezkari eta idazkari bat.

Egungo Irakaskuntza Batzordea honela dago osatua:

- Ikasketaburua: Pilar Marco Garde dk.
- 5 langile, ondorengo sailak ordezkatzeko dituztenak:
 - Sail Medikoa: Rodrigo dk.
 - Sail Kirurgikoa: De la Herrán dk.
 - Sail Pediatriko eta Ginekologikoa: Izquierdo dk.
 - Zerbitzu Zentralen Saila: Vega dk.
 - Ospitaleko Larrialdiak: Cancio dk.
- FKMko koordinatzailea: Mariñelarena dk.
- Kalitate Unitateko arduraduna: Zavala dk.
- 5 mediku egoiliar, prestakuntza jasotzen ari diren medikuen ordezkariak (espezialitate-urte bakoitzeko bana).
- Idazkari bat: Carmen Perea (Tel.: 837330 – Mugikorra: 888221).

Ikasketaburua

Prestakuntza espezializatuko ikasketaburua osasun-zientzietako prestakuntza espezializatuaren kudeatzaile bat da, eta, hala, prestakuntza espezializatua planifikatzeko, antolatze, kudeatzeko eta gainbegiratzeko jarduerak zuzenduko ditu akreditutako irakaskuntza-unitate edo zentro batean.

Ikasketaburua Irakaskuntza Batzordeko lehendakaria da, eta Donostia Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritza Batzorde Zabaldun hartzen du parte. Era berean espezialitate bakoitzeko ebaluazio-batzorde guztietan dago.

Ospitaleko gerentearen mende dago, eta egoiliarren lan- eta prestakuntza-jarduerari buruzko informazioa jakinarazten eta koordinatzen du Ospitaleko zuzendaritzaren, prestakuntza ematen den zerbitzu-tuetako arduradunen eta Irakaskuntza Batzordearen artean.

Ebaluazio Batzordeak

Hurrengo kideak daude organo horien barnean: espezialitateko tutoreak, Batzordean Blokearen ordezkaria dena, Ikasketaburua eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren ordezkari bat.

Ebaluazio Batzordeek funtzio hauek dituzte:

- a) Egoiliarren errotazioak eta jarduerak ebaluatzea, eta egoiliarren liburuak eta memoriak ontzat ematea (bai urtero bai prestakuntza-aldiaren amaieran ere).
- b) Proposamen indibidualizatuak aztertzea.
- c) Tutoreak egoiliarri buruz aurkeztutako txostena ezagutzea.

Akreditatutako espezialitate bakoitzak bere ebaluazio-batzordea du.

Tutorea

Akreditatutako irakaskuntza-unitate bakoitzean, esleitutako egoiliarren prestakuntza-programa garatzearen ardura duen tutore bat edo bat baino gehiago dago. Egoiliarrek bere tutore nagusiarengana jo beharko du bere prestakuntzarekin lotutako edozein gaitarako, eta harengandik jasoko ditu dagokion espezialitatearen araberrako prestakuntza-ibilbidea edo gida, bere prestakuntza-plan indibiduala eta hori praktikan jartzeko jarraibide zehatz guztiak. Tutorea, arrazoi justifikaturik ez badago behintzat, pertsona bera izango da prestakuntza-aldi osoan zehar eta bost egoiliar izango ditu, gehienez ere, esleituta.

Indarrean dagoen legediaren arabera, tutorea aktiboan dagoen profesional espezialista bat da, eta, horrela akreditatuta egonik, egoiliarri ezagutzak, trebetasunak eta jokabideak irakasteko planifikazio eta lankidetzak aktiboak eskaini beharko ditu, dagokion espezialitateko prestakuntza-programa betetzen dela bermatzeko. Horrela, bada, bera da egoiliarren irakaskuntza/ikaskuntzako prozesuaren arduradun nagusia, eta horregatik harreman jarraitua eta egituratua mantenduko du harekin, prestakuntza-prozesua edozein irakaskuntza-unitatetan garatzen dela ere.

Prestakuntza-prozesu guztia planifikatzea, kudeatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea dira tutorearen funtzio nagusiak. Dagokionean programaren garapena hobetzeko neurriak proposatuko ditu, eta autoikaskuntza, ardurak pixkanaka hartzea eta egoiliarren ikertzeko gaitasuna bultzatuko ditu.

ESPEZIALITATEA	TUTOREA
Analisi klinikoak	Asunción Urbieta Garagorri
Anatomia Patologikoa	Mikel Larzabal Arambarri
Anestesia eta Bizkortzea	Pilar Plou García Nuria González Jorrin Amaia Aranguren Oiarzabal
Digestiboa	Jose Alberto Arriola Manchola Fco. Javier Esandi González
Kardiologia	Ramón Querejeta Iraola
K. Orokorra eta Digestio Aparatukoa	Adolfo Beguiristain Gómez Carlos Placer Galán Raúl Jimenez Agüero
Kirurgia Pediatrikoa	Jesús Arana García
Kirurgia Plastikoa	Alberto de Cecilia Gómez
Toraxeko Kirurgia	Jose Miguel Izquierdo Elena
Kirurgia Baskularra	Jose Vicente Escribano Alonso
Dermatologia	Arantzazu López Pestaña
Ospitaleko Farmazia	Belén Irastorza Larburu
Hematologia eta Hemoterapia	M. Jesús Vidal Manceñido María Araiz Ramírez
Immunologia	Pilar Echaniz Aizpurua
Medikuntza Intentsiboa	Begoña Azkarate Ayerdi Fco Javier García Alonso
Barne-Medikuntza	Javier Zubeldia Caminos Alberto Piérola Zabalza Ignacio Arruabarrena Echeverría
Mikrobiologia	Carlos Gustavo Cilla Eguiloz
Nefrologia	Teresa Rodrigo de Tomás
Pneumologia	Nekane Mujika Atorrasagasti
Neurologia	Miren Maneiro Vicente
Neurokirurgia	Mariano Arrazola Slamilch
Obstetrizia eta Ginekologia	María Lure Berregui M. José Larraza Zandueta
Oftalmologia	Miguel Ruíz Miguel

ESPECIALIDAD	TUTOR
Onkologia Medikoa	Isabel Álvarez López
Onkologia Erradioterapikoa	Jose M. Urraca de la Serna
Otorrinolaringologia	Marta Ábrego Olano
Psikiatria	Jesús Alonso Fernández Javier Palomo Lertxundi
Psikologia klinikoa	Carmen Sanz Arzuaga
Pediatría eta Arlo Espezifikak	M. Angeles Izquierdo Riezu Eider Oñate Vergara Javier Korta Murua Leonor Arranz Arana
Erradiodiagnostikoa	Juan Vega Eraso Mikel Mendoza Alonso Maite Esnaola Albizu
Errehabilitazioa	Natividad Lizarraga Errea
Erreumatologia	Esther Uriarte Isazelaia
Traumatologia	Gaspar de la Herrán Nuñez Javier González Acha
Urologia	Gregorio Garmendia Olaizola
Laneko Osasuna	Miren Sarasola Salaberria

4. Asistentzia, irakaskuntza, ikerkuntza eta erakundean parte hartzea.

4.1. Egoiliarra Osasun-zentroan

Urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretuak, osasun-zientzietako espezialistak prestatzeko egoiliarren lan-harreman berezia arautzen duenak, arautzen ditu egoiliarren eskubide eta betebeharrak, haren lan-kontratuaren gainerako lan-alderdiekin batera. Prestakuntza sanitario espezializatuaren eredu orokorraren diseinuari erreferentzia egiten dioten arauak, berriz, orain dela gutxi eguneratu ditu otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuak, osasun-zientzietako espezialitateak zehazten eta sailkatzen dituenak eta prestakuntza sanitario espezializatuko sistemaren zenbait alderdi garatzen dituenak. Arau horrek aldaketa garrantzitsuak sartuko ditu pixkanaka tutorearen figuran, irakaskuntza-unitateetan, irakaskuntza-batzordeetan eta egoiliarrek

ebaluatzen prozesuetan. 2012ko martxoan EAEko prestakuntza sanitarioa arautzen duen 34/2012 Dekretua onartu da. Azkenik, espezialitate bakoitzean indarrean dauden programa ofizialek espezialistak prestatzeko sistemaren garapen orokorreko marko espezifiko gisa balio dute kasu bakoitzean.

Horiek guztiek ondorengo printzipio orokorrak dituzte:

- Osasun-zentroarekiko loturaren irakaskuntzako eta asistentziako helburu bikoitza.
- Prestakuntza-programa behar bezala garatzeko eskubidea eta betebeharra, egoiliarren erantzukizun-maila pixkanaka handituz. Horretarako tutoretza, orientazioa eta ikuskapena eskainiko dira egoiliarren irakaskuntza eta asistentzia-lanerako, une edo egoera bakoitzean egokia den mailan.
- Ezagutzak hobeto barneratzen lagun dezaketen ikastaro, kongresu eta konferentzietara joateko aukera.
- Jarduera asistentziala lanaldi osoan Erakundeari eskaintzea.
- Jasotako prestakuntzaren berri ematen duten egiaztagiria egiteko eskubidea.
- Irakaskuntza Batzordeak eta bere espezialitateko Batzorde Nazionalak ezarritako ebaluazio-mekanismoak onartzea.
- Egoiliarra hierarkikoki bere espezialitateko zerbitzuburuaren mende dago, bai eta bere tutorearen eta Ikasketa Buruzagitzaren mende ere, prestakuntzarekin lotutako alderdietarako.
- Bere unitatetik kanpoko errotaio-aldiei ekitean, dagozkion zerbitzuburuaren eta tutorearen aurrean aurkeztu beharko du. Horiek emango dizkiote beharrezko jarraibideak, eta horiek izango dira etapa horretan jasoko duen irakaskuntzaren arduradunak.
- Une bakoitzean atxikita dagoen zerbitzuko ordutegi bera izango du, salbu bere tutoreak edo Irakaskuntza Batzordeak bere prestakuntzari begira lan-ordutegi arruntetik kanpoko jardueraren bat egin behar duela jotzen duenean.

4.2. Jarduera asistentzialak

Espezialistaren titulazioa zenbait ezagutza eta trebetasun pixkanaka eta tutoretzapean eskuratu ondoren bakarrik lor daiteke. Tutoreak landutako prestakuntza-plan indibidualean aurreikusten diren

lan asistentzialak egingo ditu egoiarrak prestakuntza-aldi osoan zehar. Alderdi asistentziala espezialitateko irakaskuntza-programa garatzeko bitartekoetako bat da, eta, beraz, ezinbestekoa da prestakuntza egokia lortzeko. Etapa bakoitzean esleitutako plantillako medikuak gainbegiratuko ditu zuzenean jarduera asistentzialak eta bera izango da irakaslerik zuzen eta hurbilekoena. Espezialitatean aurrera egin ahala, gainbegiratze-maila txikituz joango da, eta egoiliarren erantzukizun-maila, berriz, handituz.

Azken helburua da prestakuntzaren azken hilabeteetan lan asistentzialean duen autonomia- eta erantzukizun-maila % 100era hurbiltzea.

Guardiak

Egoiliarrek pazienteen asistentzia jarraituan parte hartzea, osasun-zentroarekiko daukaten lotura definitzen duten bi alderdietatik (irakaskuntzarena eta lanarena) dator. Alde batetik, guardiek prestakuntza-eginkizun bat dute, larrialdietan erantzuten eta pazienteari arreta jarraitua ematen ikastea alegia. Bestetik, egoiliarra ospitaleko lan asistentzialetan parte hartzera behartuta dago, egoiliarren lan-kontratu berezian ezarrita dagoen bezala, eta guardien kasuan ordainsari espezifiko bat jasoko du. Egoiliarra prestakuntza-aldi osoan egongo da guardia-talde bati atxikita, eta bere espezialitatearen edo egoiliar gisa daramatzan urteen arabera aldatuz joango da talde hori.

Guardiak Larrialdien Arloan

Mediku guztiek izan beharko dute gai, edozein espezialitatetakoak izanda ere, medikuntzako alderdi orokorretan moldatzeko, lizentziatuaren tituluak horretarako gaitzen baititu bai legez bai profesionalki.

Horrela, denbora zehaztugabe batez medikuek haien espezialitateari dagozkion larrialdi-arloetan egingo dituzte guardiak.

Haien eginkizunak hauek izango dira:

- Gaixoaren historia klinikoa eta azterketa fisikoa egitea.
- Laborategiko probak eta proba osagarriak eskatu eta agintzea, pazientearen diagnostikoa (sindromikoa behintzat) ezartzeko.
- Pazientea ospitaleratu behar den ala ez erabakitzea.
- Tratamendu egokia jartzea.

Lan horietarako, Larrialdietako Zerbitzuko langileen laguntza eta gainbegiratua izango du, baita guardian berarekin batera dauden mediku egoiliar zaharragoena ere. Horiengana joko du, beharrezkotzat jotzen dituen kontsultak egiteko, erabakien ardura partekatua izan dadin.

Patologia akutua duten gaixoak maneiatzen, irizpen klinikoak lan-tzen eta erabaki terapeutikoak hartzen trebetasuna eta erraztasuna hartzea dira jarduera honetako prestakuntza-helburu nagusiak.

Espezialitateko Guardiak

Pixkanaka eta tutoretzapean, bere zerbitzuan guardiak egiten hasiko da egoiliarra, baita errotazioak ezarrita dituen zerbitzuetan ere. Guardiak zerbitzu bakoitzeko programatzen dira, eta horien barruan ospitaleko larrialdietako arlo bakoitzeko.

Prestakuntza-irizpideak kontuan hartuta, Irakaskuntza Batzordeak ezarrita dauka hilean 4 eta 6 guardia bitartean egin behar direla batez beste.

4.3. Irakaskuntza-jarduerak

Prestakuntza-programa

BAME promozio bakoitzaren hasieran, akreditatutako espezialitate bakoitzeko tutoreak espezialitateko Batzorde Nazionalak argitaratutako gida berrikusiko du.

Espezialitateko gida ofiziala zentroari egokituz eta aurreko ekitaldian detektatutako hobetzeko puntuak espezifikoki barne hartuz eratzen da espezialitate bakoitzeko GIDA edo PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA, egoiliar bakoitzaren prestakuntza era pertsonalizatuan planifikatzeko funtsezko txostena alegia.

Gida horretan, espezialitate bakoitzeko Batzorde Nazionalak landutako prestakuntza-planaren gidalerroak zentroko irakaskuntza-prestazioei egokituko zaizkie. BAME prestakuntza-urte bakoitzeko espezialitate bakoitzari dagozkion irakaskuntza, ikerkuntza eta asistentziako helburu orokorrak gida horietan jasoko dira.

Horrez gain, espezialitatetako tutoreek egoiliar bakoitzaren prestakuntza-plan indibidualizatuak landuko dituzte urtero, prestakuntzako espezialista bakoitzak egoiliarren prestakuntza-aldi bakoitzean egin beharreko prestakuntza-jarduera teoriko-praktikoen behin-behi-

neko plangintza jasota.

Prestakuntza Plan Indibidual horri esker, egoiliarrek lehen unetik jakingo du zein jardueratan parte hartuko duen –ziurgabetasuna txikiagotuz era horretan–, irakaskuntza-mailako konpromisoak ezarri eta indartuko ditu, bere ikaskuntza-prozesuaz jabetuko da, eta bere denbora eta baliabideak efizientzia handiagoz antolatuko ditu.

Plan Indibidualizatua ospitalera iristean emango zaio R-1ari, Irakaskuntzako Idazkaritzan, eta tutorearekin egindako elkarrizketetan, hurrengo urteetan.

Saioak

Zerbitzu bakoitzean antolatutako saioak espezialitateko irakaskuntza-programen zatitzat hartuko dira, eta, beraz, unitateko egoiliarrek (bertakoak zein bertan errotazioan daudenak) haietan egotera behartuta daude.

Gainera, ospitaleko zerbitzu guztiek parte hartuko duten saio orokorrak egingo dira hilero. Behar bezala iragarriko da, saio horietara joatea nahitaezkoa da-eta.

Ikastaroak

Irakaskuntza Batzordeak interes orokorreko ikastaroak antolatuko ditu urtean zehar, espezialitateetako zeharkako ezagutzak hobetzeko helburuarekin. Programak, ikastaroen datak eta izena emateko baldintzak Irakaskuntza Batzordeko iragarki-taulan jarriko dira, guztien eskura, eta horrez gain, posta elektronikoz ere jakinaraziko zaizkie tutore eta egoiliarrei behar adinako aurrerapenez.

Ikastaroak nahitaezkoak dira, R-1 eta R-5 bitarteko prestakuntza-urteetan antolatuta daude, eta arreta sanitarioaren hainbat alderdi jorratzen dira horietan:

- Oinarrizko BBB eta BBB aurreratuari buruzko ikastaroa.
- EKGko ikastaroa.
- Elkarrizketa klinikoari buruzko ikastaroa.
- Aurkezpen zientifikoei buruzko ikastaroa.
- Bilaketa bibliografikoari buruzko ikastaroa.
- Erradiazioaren aurkako babesari buruzko ikastaroa.
- Nutrizio klinikoari buruzko ikastaroa.

Kanpo-errotazioak

Nahiz eta ospitalea eskainitako 37 espezialitateetan irakaskuntza emateko akreditatua dagoen, baliteke, kasuren batean eta espezialitate jakin batzuetarako, nahitaez bete beharrekoak diren zenbait arlotan gabeziak egotea. Kasu horietan, arlo horiek osatzeko, kanpo-errotazioak egin ahal izango dira nazioko zentro akreditatuetan, baita atzerrikoetan ere espezialitatearen arabera.

Errotazio horiek Irakaskuntza Batzordeari eskatu behar zaizkio, plan indibidualizatuen barnean egon beharko dute, eta ez dute egoiliarren prestakuntza-aldiaren barruan 8 hilabeteko muga gainditu behar.

Errotazio horiek honela sailkatzen ditugu:

- *Nahitaezkoak*: espezialitateko gaitasunen bat eskuratzeko.
- *Osagarriak*: zentroan irakasten diren arren, edozein arrazoiengatik irakaskuntza-kurban nahi den maila eskuratzeko ez den gaitasunetan ezagutza eta trebetasunak hobetzeko.
- *Apartekoak*: zenbait espezialitatearen programa ofizialetan, kanpo-errotazio bat gure herrialdetik kanpo egiteko aukera ematen da.

Liburutegia

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Liburutegia biomedikuntzan eta osasun-zientzietan espezializatutako informazio- eta dokumentazio-zerbitzu bat da, eta zentroko langileei funts bibliografikoen (elektronikoen nahiz paperekoen) eta erreferentziako zerbitzuen multzo eguneratu bat ematea da bere helburua, zentro honetako irakaskuntza-, ikerkuntza- eta asistentzia-funtzioak kalitate-mailarik onenarekin garatu ditzaten.

Liburutegia Arantzazu eraikineko 3. solairuan dago (1. eta 2. unitateen artean) eta Eukene Ansuategi eta Marimar Ubeda dira bertako arduradunak.

Gainera ospitaleko intranetetik sar daiteke (<http://biblioteca-hdonostia>) nobedadeei buruzko informazioa, katalogoa edo esteka interesgarriak eskuratzeko eta artikuluen eskaerak egiteko.

Gaur egun Liburutegiak 157 bat aldizkari ditu harpidetuta erakunde-moduan, eta 2.229 titulu inguru partekatze-sistemaren bidez. 85 aldizkari inguru ditu paperean eta 2.301 online eskuragarri. Monogra-

fien funtsaren barruan 4.774 ale daude paperean eta 3.500 formatu elektronikoan gutxi gorabehera.

Datu-baseetarako sarbidea:

Liburutegiaren bidez biomedikuntzako datu-base nagusietan sar daiteke: Clinical Evidence, Uptodate, Essential Evidence Plus (ezin da eskuratu Athens bidez, Donostia Unibertsitate Ospitalearen harpidetza zuzeneko delako), Cochrane Library, Medline, Embase, PsycInfo, Cinhal, Web of Knowledge..., eta baita farmakologiako datu-base espezifiko batzuetan ere.

Bildumetarako sarbidea:

Aldizkari eta datu-baseen bildumak Osakidetzatik kanpoko terminaletatik kontsultatzeko beharra asetzeko, Athens plataforma kontratatuta da. Ondorengo baliabideak ditu harpidetuta Osakidetzako gainetarako liburutegiekin modu partekatuan:

- Wiley-Blackwell
- Elsevier Instituciones (lehen Doyma zena)
- BMJ Journals
- MD-Consult
- Elsevier: Science Direct
- Ovid
- Oxford University Press
- Thieme
- Springer

Hauek dira Liburutegiak erabiltzaileei eskaintzen dizkien zerbitzu nagusiak:

- Informazioa eta erreferentzia: Liburutegiak laguntza ematen dio erabiltzaileari Liburutegiaren katalogoa osatzen duten funtsak bilatzeko orduan.
- Bilaketa bibliografikoak: erabiltzaileek azaldutako informazio-beharren arabera.
- Funtsen mailegua: liburuak, CD-ROMak edo bideoak. Aldizkariak eta erreferentziako materiala (hiztegiak eta entziklopediak adibidez) bakarrik geratzen dira mailegatzeko aukeratik kanpo.
- Dokumentuak hornitzea eta lortzea: liburutegiaren funtsekin

asebete ezin daitezkeen erabiltzaileen informazio-eskaerak bil-tzen ditu liburutegiak, eta horretarako gai diren etara bidera-tzen ditu.

- Erabiltzaileen prestakuntza: bilaketa bibliografikoari buruzko ikastaroak ematen dira FOMaren printzipioetan oinarrituta, liburutegian eskuragarri dauden online baliabideak eta datu-baseak erabiltzeko tutorialak eskaintzen dira, eta erabiltzaileei sortzen zaizkien zalantzak erantzuten dira.

4.4. Ikerkuntza-jarduerak

Gaur egungo Osasun Zientzietako Prestakuntza Espezializatuko Programaren helburuetako bat metodologia zientifikoa ikastea da. Horri esker, espezialista izango dena gaituta egongo da ez bakarrik ikerketa-lanak diseinatzeko, baizik eta, are garrantzitsuagoa dena, baita argitalpen profesionaletan egunero azaltzen diren lanen irakur-keta kritiko bat egin ahal izateko ere.

Helburu horrekin, haren irakaskuntza-unitatean egiten diren lan zientifikoetan parte hartu beharko du egoiliarrek, argitaratzeko, kongresuetan ezagutzera emateko edota, besterik gabe, emaitzak berriku-si eta horrela esperientzia propioa kontrastatzeko asmoz egindakoe-tan. Kongresuetarako posterren diseinua eta inprimatzea Komunikazio Unitatearen ardura dira; beraz, komeni da egin baino lehen unitate horrekin harremanetan jartzea (Manolo González, luz. -7357).

Profesional onaren prestakuntza integralak hiru oinarri ditu: asis-tentzia, irakaskuntza eta ikerkuntza. Hiru alderdi horiek elkarri lotuta daude, eta ez da posible horietako batean bikaintasuna lortzea beste alderdiek zerikusirik izan ez badute.

Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak jarduera-plan bat ezarri du mediku egoiliarren ikertzeko gaitasuna hobetzeko. Urtero antola-tzen dira ikertzeko metodologiari buruzko ikastaroak, mintegiak eta tailerrak, eta, horiei esker, lehendik hasita dauden eta azken finean doktorego-tesi edota nazioko nahiz nazioarteko argitalpen bilakatuko diren ikerketa-lerroetan parte hartu ahal izango dute.

Bekak emateko baloratuko den beste parametroetako bat pro-dukzio zientifikoa izango da, hau da, nazioko eta nazioarteko aldizka-rietan argitaratutako lanen kopurua. Egoiliarrek jakin beharra dauka-te doktorego-tesia osorik edo parte batean prestakuntza-aldian zehar egitea posible dela, eta doktorego-ikastaroak egoiliarren ikerketa-es-pedienterako merituak izango direla.

Gure ospitalean ikerketa-arlo horren guztiaren sustatzailea BIO-DONOSTIA institutua da, ondorengo misioa duena: "Praktika klinikoan aplikatu daitezkeen eta nazio- zein nazioarte-mailako oihartzuna izango duten bikaintasuneko jarduera zientifikoak garatzeko ikerketa-zentro bat izatea."

Zerbitzu Orokorren eraikin zaharrean dago, Psikiatriako eraikinarren ondoan eta Gipuzkoa eraikinarren atzean, eta 6 ikerketa-arlo handi ditu:

- Bioingeniaritza.
- Medikuntza Biziberritzailea.
- Epidemiologia Klinikoa eta Osasun Publikoa.
- Gaixotasun Infekziosoak.
- Neurozientziak.
- Gaixotasun Digestiboak, Gaixotasun Kardiobaskularrak eta bestelako Gaixotasun Sistemikoak.

Bertako zuzendari zientifikoa Julio Arrizabalaga dk. da.

5. Ebaluazioak

Alde batetik prestakuntzako espezialistaren ebaluazioa hartzen du, eta bestetik zentroko irakaskuntza-egiturarena.

Errotazio-aldi bakoitzaren amaieran, esleitutako medikuak eta tutoreak ebaluatuko dute egoiliarra eta dagokion txostena bidaliko diote Irakaskuntza Batzordeari, espedientean sartzeko.

Urte urte espezialitate bakoitzeko ebaluazio-batzordeak bere unitateko egoiliarren irakaskuntza- eta asistentzia-errendimendua baloratu du urte-amaieran. Horretarako, kontuan hartuko dira bai zerbitzuan bertan garatutako lana bai errotazioetako txostenak. Ezinbestekoa da egoiliarrek ebaluazio partzial hori gainditzea hurrengo prestakuntza-urtera igarotzeko.

Ebaluazioa negatiboa izanez gero, Ebaluazio Batzordeak ondorengo aukeretako bat hautatuko du:

- Ebaluazio negatiboaren arrazoia ezagutza-falta edo nahikoa ikasi ez izana bada eta ezagutza horiek eskura badaitezke, errehabilitazio espezifiko eta programatu bat ezarriko da, pres-

takuntzako espezialistak hurrengo ikasturteko lehen hiru hilabeteetan egin beharko duena, ikasturte horrek berezkoak dituen jarduerekin bat. Prestakuntzako espezialistaren behin betiko ebaluazioa errehabilitazio-aldiaren amaieran izango da azkenik. Kontratua hiru hilabetez luzatuko da, lehenik, eta urteko luzapena ebaluazioaren emaitzaren baitan egongo da.

- Ebaluazio negatiboaren arrazoiak justifikaziorik gabeko absentsia errepikatuak, aprobetxamendu-falta nabarmena edo ikaste eskasa baldin badira eta horiek berreskuratu ezin badaitezke, Batzordeak Zentroko Zuzendaritzari jakinaraziko dio, legez aplikagarria den prozeduraren arabera kontratua desegiteko.
- Ebaluazio negatiboaren arrazoiak lanerako ezintasun iragankor-rragatik edo urteko lanaldiaren % 25 baino gehiago egin ezin izateko legezko beste kausengatik kontratua denboraldi luze-tan eten izana bada, Osasun Ministerioko Antolamendu Profesionaleko Zuzendaritza Nagusiak, aurrez Irakaskuntza Batzordeak txostena egin ondoren, prestakuntza-aldia partzialki errepikatzea baimendu ahal izango du.

Ebaluazioa prestakuntza-aldiaren azken urteari dagokionean, Ebaluazio Batzordearen kalifikazioak proposamen-izaera izango du, eta behin Irakaskuntza Batzordeak horren berri eman duenean, dagokion espezialitateko Batzorde Nazionalera eta Hezkuntza Ministeriora eramango da espezialista-titulua emateko

Egoiliarren liburua

Egoiliarrek bere liburuan eta urteko memoria batean adieraziko ditu bere jardura guztiak, eta Irakaskuntza Batzordeak gainbegiratu, ontzat eman eta sinatuko ditu horiek urteko ebaluazioan.

6. Gogobetetasun-inkesta

Urtero, ikasturtearen amaieran, egoiliarrek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kudeatutako gogobetetasun-inkesta bat beteiko du *online*.

Inkesta hori zenbait ataletan banatua dago, esaterako: Tutorea, Irakaskuntza Antolamendua, Gaitasun Osagarriak eta Pertsona Arte-

koak, Pertsonala, Saioak eta Ikastaro eta Kongresuetara Joatea.

Tutorearen ardura da egoiliarrek inkesta behar bezala bete dezaten saiatzea, emaitzak fidagarriak izan daitezen eta horrela, inkesta hobekuntza-elementu garrantzitsua gerta dadin aurrerantzean.

Irakaskuntza Batzordeak aztertuko ditu inkestaren emaitzak ospitaleko globalerako eta espezialitateetarako, eta txosten bat landuko du alde sendoekin eta hobetzeko arloekin, hurrengo urteko helburuen artean sartuko direnak.

Inkesta anonimo hori elementu garrantzitsu bat da irakaskuntza-prozesua hobetzeko, eta, beraz, oso garrantzitsua da egoiliarrek urtero-urtero bertan parte hartzea.


7. Egoiliar onenarentzako saria

Donostia Unibertsitate Ospitaleko mediku egoiliarren zientzia -eta prestakuntza-ibilbidea saritzeko helburuarekin, Ospitaleak sari bat banatzen du urtero espezialitatea amaitzen duten egoiliarren artean.

Horretarako, egoiliarrak prestakuntza-urte guztietan izan duen jardueraren memoria aurkeztu beharko du, ezarritako baremo baten arabera autoebaluazio batekin batera. Bi sari ematen dira:

- 1. saria: Plaka oroigarria eta 1.800 euro.
- 2. saria: 1.200 euro.

Donostia Unibertsitate Ospitalerako sarbideak



- Arantzazu eraikina
- Amara eraikina
- Ama-haurrentzako eraikina
- Gipuzkoa eraikina
- Psikiatria eraikina